

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

3625

EBAZPENA, 2026ko uztailaren 21ekoa, Araubide Juridikoaren sailburuordearena, zeinaren bidez argitaratzen baita Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetza Batzordearen Akordioa, 2026ko maiatzaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2026. urteko Aurrekontu Orokorrak onesten dituen abenduaren 23ko 7/2025 Legeari buruzkoa.

Konstituzio Auzitegiaren urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoaren 33.2 artikuluan aurreikusitako akordioa hartuta eta bat etorrita artikulua horren c) letran ezarritakoarekin, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetza Batzordearen Akordioa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2026. urteko Aurrekontu Orokorrak onesten dituen abenduaren 23ko 7/2025 Legeari buruzkoa. Ebazpen honen eranskinean jaso da, hain zuzen ere, akordio hori.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 21a.

Araubide Juridikoaren sailburuordea,
KEPA BILBAO GAUBECA.

ERANSKINA

AKORDIOA, ESTATUKO ADMINISTRAZIOAK ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAK OSATUTAKO ALDEBIKO LANKIDETZA BATZORDEARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2026. URTEKO AURREKONTU OROKORRAK ONESTEN DITUEN ABENDUAREN 23KO 7/2025 LEGEARI BURUZKOA

Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzak Batzordeak akordio hau onartu du:

I.– Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzak Batzordearen Akordioaren bidez, lantalde bat osatu zen Euskal Autonomia Erkidegoko 2026. urteko Aurrekontu Orokorrak onesten dituen abenduaren 23ko 7/2025 Legearen azken xedapenetako hamargarrenaren gainean agertutako desadostasunak aztertu eta irtenbide bat proposatzeko. Bada, lantalde horrek aurretik egindako negoziazioekin bat etorritik, bi aldeek uste dute desadostasun horiek konponduta geratu direla, erabaki baitute manu hori Eusko Jaur-laritzaren araugintza- eta administrazio-ahalak baliatuz aplikatu eta garatuko dela, irizpide hauen arabera:

a) Manu horretan ekonomia sustatzeko politikei egiten zaien erreferentzia sustapen-jarduketei buruzkoa dela ulertu behar da, hala ondorioztatzen baita xedapena onartzea eragin zuen zuzenketaren justifikaziotik.

b) Azken xedapenetako hamargarrenean ezartzen dena Estatuaren Kanpo Ekintza eta Zerbitzuari buruzko martxoaren 25eko 2/2014 Legearen 11. artikuluekin bat etorritik interpretatu behar da.

II.– Halaber, Europako Segurtasun Estrategiari egiten zaion aipamena honela ulertu behar da: jarduketak Europar Batasuneko eta estatu kideetako zuzenbidearen esparruan gaiari buruz jasota dauden printzipioetara egokituta egotea, betiere Europar Batasuneko eta estatu kideetako kanpo-ekintzako printzipioak eta helburuak errespetatuz; horri dagokionez, araua egokitzea bul-tzatuko da, argiagoa izan dadin.

III.– Lortutako akordioa dela-eta, bi aldeek konpondutzat jotzen dituzte adierazitako desadostasunak, eta planteatutako eztabaida amaitutzat ematen dute.

IV.– Akordio hau Konstituzio Auzitegiari jakinaraziko zaio, Konstituzio Auzitegiaren urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoaren 33.2 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, eta Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Lurralde Politikako eta Memoria Demokratikoko ministroa,
ÁNGEL VÍCTOR TORRES PÉREZ.

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburua,
MARÍA UBARRECHENA CID.